

TERMOKIMIKA 1.PRINTZIOAREN ARIKETAK.-orri(1)

- 1.1 Ba al da prozesu motaren bat zeinetan barne energiaren aldaketa trukaturiko beroaren berdina den? Zeinetan? Zer baldintza bete behar da?...
- 1.2 Komenta ezazu honako esaldia: " Gasen arteko erreakzioetan mol aldaketarik ez badago presio konstanteko beroa eta bolumen konstanteko beroa berdinak dira" Froga ezazu erantzuna.
- 1.3 Adierazi, erantzuna arrazoituz, adierazpen hauek zuzenak ala okerrak diren:
 - a. Entalpia ez da egoera-funtzioa.
 - b. Ekuazio hau $\Delta H = \Delta U + P \cdot \Delta V$ presio konstantean egiten diren prozesuetan bakarrik betetzen da.
- 1.4 Erreakzio kimiko hau emanda: $C_6H_6(g) + 15/2 O_2(g) \rightarrow 6 CO_2(g) + 3H_2O(g)$. Azaldu:
 - a. Ea prozesuaren entropia handitzen ala txikiagotzen den.
 - b. Ea temperatura berean, bolumen konstantean askatutako beroa (Q_v) eta presio konstantean askatutakoa (Q_p) berdinak diren.